



**BEGOÑA GARMENDIA VAZQUEZ, Tolosako Udaleko idazkaria.**

**NEUK ZIURTATUA:**

**Udalbatzak, bi mila eta hogeita biko martxoaren hogeita hamaikan, Ohiko Osoko Bilkuran, besteak beste, honako erabaki hau hartu zuen:**

**12.MENDEBALDEKO SAHARARI BURUZKO MOZIOA.**

*“Espainiako Estatuak, arrazoi historiko, politiko eta juridikoengatik, erantzukizun handia dauka bizi-bizi dirauen Mendebaldeko Saharako gatazka politikoan.*

*Izan ere, 1975an, Hagako Nazioarteko Auzitegiak legez kanpoko jo zituen ‘Madrilgo Akordioak’. Ondorioz, Marokok ez dauka subiranotasunik Mendebaldeko Saharan, eta okupazioa legez kanpokoa da erabat.*

*Duela hamarkada batzuk, Nazio Batuen Gutunean jasotzen denarekin bat etorritik, NBEak Mendebaldeko Saharaz adierazi zuen “Lurralde ez Autonomoa” dela, gobernu propioa osotasunean eskuratu ez duten herrien lurraldeei ematen zaien izendapenaren arabera. Afrika osoan, Mendebaldeko Saharakoa da oraindik etenda dagoen estatutu post kolonial bakarra.*

*Halaber, Nazio Batuen Erakundeak Espainiako Gobernuari etengabe erreklamatu dio potentzia kolonial administratzailea izanik –‘de iure’ ere bai Auzitegi Nazionalak 2014an ebatzi zuen autoaz geroztik–, ahalegindu dadila behar adina Saharako Herriak bere autodeterminazio eskubidea erabil dezan erreferendumaren bidez.*

*Espainiako Gobernuaren aldebakarreko erabaki berri hau ez da jarrera sinesgarria, ezta errealista ere, izaera politikoko gatazka hau konpontzeko.*

*Horiek horrela:*

- *Tolosako Udalak erabat arbuatzen du Espainiako Gobernuko agintariek Mendebaldeko Saharako gatazka politikoaren inguruan jarrera erroatik aldatu izana, historian inoiz ez bezala. Aldaketa honek esan nahi du Marokok Mendebaldeko Sahara erabat bereganatzeko dituen asmo eta anbizioekin bat egiten duela Espainiako Gobernuak.*
- *Tolosako Udalaren ustez, Espainiako Gobernuaren azken jarrera honek erabat urratzen ditu Nazioarteko Zuzenbidea, Nazio Batuen Gutunaren printzipio eta baloreak eta Nazio Batuen Segurtasun Kontseiluaren ebazpenak, irtenbide politiko bidezko eta iraunkorra aldarrikatzen baitute, alde bien artean adostua eta Saharako Herriaren borondatea askatasun osoz adierazteko eskubidea gauzatzu amaitu beharko litzatekeena.*
- *Tolosako Udalak eskatzen die Espainiako Estatuari eta Europar Batasunari berari EBko Justizia Auzitegiak emandako ebazpenak errespetatzeko. Ebazpen horien arabera, Mendebaldeko Saharako era guztietako baliabide naturalak Saharako Herriari dagozkio eta, haren baimenik gabe, ezin ditu inork erabili.*
- *Tolosako Udalak inplikaturako alde guztiei eskatzen die uko egiteko probokaziozko edo indarrezko edozein ekintzari; eta konpromisoa hartzeko*



*elkarrizketa eta negoziazio prozesuarekin jarraitzeko, Mendebaldeko Saharan Erreferendumerako Nazio Batuen Misioarekin (MINURSO) hitzartutako akordioak erabat errespetatuz.*

- *Tolosako Udalak bere lurraldea okupatuta duen herriaren tragedia aitortzen du; baita basamortuan bizirautea lortzen duten errefuxiatuena ere. Ondorioz, Tolosako Udalak berresten du eta dei egiten die herritarrei Mendebaldeko Saharako eta Tinduf-eko kanpamentuetako egoera humanitarioa hobetzeko laguntza eskaintzen jarraitzeko.”*

Udalbatzako bozketaren emaitza honako hau izan da:

**Aldeko botoak:** Olatz Peon Ormazabal, Begoña Tolosa Mendia, Xarles Iturbe Pasaban, Patxi Amantegi Zubiria, Joseba Koldo Ormazabal Lopez, Egoitz Sorozabal Iturain, Xabier Balerdi Tolosa, Izarne Iglesias Garcia de Iturrospe, Andu Martinez de Rituerto Arregui, Kristina Pelaez Errazkin, Aitana Amondarain Esquisabel, Aitzol Garcia Azurmendi, Estitxu Kortejarena Ugarte, Ander Figuerido Zubiria, Garbiñe Marzol Ormazabal eta Xabier Martinez Quinquilla.

**Abstentzioa:** Jose M<sup>a</sup> Villanueva Telleria.

Beraz, Udalbatzak gehiengoz onartu du Mendebaldeko Saharari buruzko mozioa.

**Hala jasota gera dadin eta bidezko ondorioak izan ditzan, ziurtagiri hau egiten dut, Antolakuntzako zinegotzi delegatuaren onespenearekin, Tolosan, sinadura agertzen den datan**

O.e.  
**ANTOLAKUNTZAKO  
ZINEGOTZI DELEGATUA**

**IDAZKARIA**



## Sinaduren laburpena / Resumen de firmas

**Titulua / Título:**

2022IPLE0003-Mendebaldeko Sahara buruzko mozioa/Mendebaldeko Sahara